

2018KO ABENDUAREN 13AN, LEHENENGO DEIALDIAN GETXO KIROLAKEK EGINDAKO EZ-OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA	ACTA DE LA SESION EXTRAORDINARIA CELEBRADA EN PRIMERA CONVOCATORIA POR EL CONSEJO RECTOR, EL DIA 13 DE DICIEMBRE DE 2018
---	--

LEHENDAKARI ERAGINKORRA	PRESIDENTE EFECTIVO
-------------------------	---------------------

P.N.V. – E.A.J. GONZALEZ PEREZ, Alvaro Jn.

BERTARATUTAKO BOKALAK	VOCALES ASISTENTES
-----------------------	--------------------

GUK GETXO	AMIEVA CLEMENTE, Paula
GUK GETXO	ANDOLLO GONZALEZ, Susana and.
P.N.V. – E.A.J.	ARREGI MARTINEZ, Joseba jn.
P.N.V. – E.A.J.	CORIA YANUAS, Elena and.
P.P.	COS YAÑEZ, Susana and.
P.N.V. – E.A.J.	EIGUREN ALBERDI, Keltse and.
P.P.	IBABE BOTELLA, Miguel jn.
P.N.V. – E.A.J.	ITURBE MENDILIBAR, Koldo jn.
P.S.E./EE	LANDA ARTECHE, José Luis jn.
EH BILDU	RODRIGUEZ LARRINAGA, Ibon jn.
CIUDADANOS	SAINZ ROBLES, Santiago jn.
P.N.V. – E.A.J.	URIARTE GOROSTIAGA, Ignacio jn.

BEHIN-BEHINEKO GERENTEA	GERENTE ACCIDENTAL
-------------------------	--------------------

MIÑAMBRES AMEZAGA, Aitor jn.

GONBIDATUTAKO LANGILE TEKNIKOAK	INVITADOS PERSONAL TÉCNICO
---------------------------------	----------------------------

ZABALA LASA, Gorka jn.

<u>AZTERGAIEN ZERRENDA</u>	<u>ORDEN DEL DIA</u>
<p>-2018ko urrian eta azaroan honako zatietan banandutako ikastaroen exekuziorako eta garapenerako emandako zerbitzuei dagozkien fakturak onartzeko proposamena: ur ekintzak, raketak, indoor eta arte martzialak</p> <p>-2019 urterako Getxo Kirolak TEA-n zerbitzuak emateagatik eta kirol eta kultur jarduerak egiteagatik sortutako tasa arautzen duen ordenantza fiskalaren aldaketarako, hain zuzen, "salbusepen eta hobariak" deritxon 4. Atalarako, ogasuneko batzordera bideratzeko akordio proposamena</p>	<p>-Propuesta de aprobación de las facturas correspondientes al mes de octubre y noviembre de 2018 por el servicio de ejecución y desarrollo de los cursos deportivos de los siguientes lotes: Actividades acuáticas, raquetas, indoor y artes marciales</p> <p>-Propuesta de acuerdo para elevar a la comisión de hacienda del ayuntamiento de Getxo la modificación de la Ordenanza Fiscal Reguladora de la Tasa para la prestación de servicios y realización de actividades deportivas y Culturales del OAL "Getxo Kirolak" año 2019, en lo relativo al apartado 4 de "exenciones y bonificaciones"</p>


Getxon, 2018ko abenduaren 13an, arratsaldeko 14:30ean, ez-ohiko bileran bildu da Zuzendaritza Batzordea, Santa Klarako Batzar Aretoan (Getxoko Udaletxea), goian aipatutako pertsonak batu direlarik.

En Getxo, a las 14:30 horas del día 13 de diciembre de 2018 se reúne en sesión extraordinaria, en la Sala de Comisiones de Santa Clara (Ayuntamiento de Getxo), el Consejo Rector con la asistencia de las personas que arriba se relacionan.

162.- 2018KO URRIAN ETA AZAROAN HONAKO ZATIETAN BANANDUTAKO IKASTAROEN EXEKUZIORAKO ETA GARAPENERAKO EMANDAKO ZERBITZUEI DAGOZKIEN FAKTURAK ONARTZEKO PROPOSAMENA: UR EKINTZAK, RAKETAK, INDOOR ETA ARTE MARTZIALAK

Lehendakariak edozein galdera egiteko eskatu die bertarututakoei, une honetan argitzerik badu, behintzat.

Ibon Rodriguez: Batzar honen beharra, kontuan izanda, gaira, beste bat daukagula astearlean. Osea... horren premia... eta gainera, gaiak ikusita zeintzuk ziren... ez dut beharra ikusten. Baina gero, jadanik gaian sartuta, ikusten duguna da hemen, alde batetik esaten da hor, hasi zirela kurtsoak kontratazio txiki batzuen bitartez... oker ez banago... kontratazio horiek egiteko kontuan hartu ziren ondorengo epe handia irabaziko zuten enpresekin egin zen kontratazioa... baina gero kontratu txiki horien ondorioz, igual nahiko ez gara izan... oker ez banago... eta hori lehenengo orrian jartzen garen lehenengo orrialdean. Orduan, fakturretan agertzen dena, zer da: zerbitzu osoa ala kontratu txikia... o sea, nahikoa izan ez den diru kantitatea?



Lehendakaria: Bi gai. Batetik, hau ez da Premiako Ezohiko Kontseilua. Ezohikoa da, eta ezohikoa da *Gai Zerrendako* bigarren arrazoiarengatik, ez lehenengoarengatik. Lehenengoa aprobetxatu dugu, jakina, Getxo Kirolak fakturak ahalik eta azkarren ordaindu nahi ditugu-eta. Ez dago beste arrazoirik. Horregatik sartu dugu hemen. Baina arrazoia da *Gai Zerrendako hurrengo puntua* Ogasun Batzordera eraman beharra dagoela eta Ogasun Batzordetik Osoko Bilkurara. Ez dago beste arrazoirik.

Eta, galdetu didazunari dagokionez, egun hartan adierazitako moduan, Zuzendaritza Batzorde batean esan zen estaldura emango genuela, harik eta kontratu nagusia esleitu arte, kontratu txikien bitartez, eta kontratu txikiak —gainera, uste dut zuk galdetu zenuela— behar adinako estaldura ematen ez bazuen zegokion fakturaziorako, fakturak Zuzendaritza Batzordera eramango genituela. Eta horixe egiten ari gara oraintxe bertan.

Ibon Rodriguez: Orduan, galdera hau egiten dut: fakturak behar adinakoak izan ez diren kopuru horienak diren soilik edo zerbitzu osoarenak. Hori da nire galdera.

Lehendakaria: Faktura hauek zerbitzuaren zatiarenak dira. Faktura horietan agertzen diren zenbatekoak ezin izan dira bete legezko kontratuen bitartez. Hori galdetu zenidan beste aldi batean.

Paula Amieva: Guk ere zalantza dugu fakturen gaiarekin.

162.- PROPUESTA DE APROBACIÓN DE LAS FACTURAS CORRESPONDIENTES AL MES DE OCTUBRE Y NOVIEMBRE DE 2018 POR EL SERVICIO DE EJECUCIÓN Y DESARROLLO DE LOS CURSOS DEPORTIVOS DE LOS SIGUIENTES LOTES: ACTIVIDADES ACUÁTICAS, RAQUETAS, INDOOR Y ARTES MARCIALES

El Presidente invita a los presentes a formular cualquier pregunta que pueda aclarar en este mismo momento.

Ibon Rodriguez: La necesidad de esta reunión, teniendo en cuenta además que tenemos otra el martes. O sea... la urgencia de eso... y además, vistos cuáles eran los temas... no veo la necesidad. Pero luego, ya metidos en el tema, lo que vemos es que aquí, por una parte se dice ahí, que han empezado los cursos a través de algunas pequeñas contrataciones... si no me equivoco... para hacer esas contrataciones se tuvo en cuenta que se hiciera con las empresas que ganarían a largo plazo... pero después, como consecuencia de esos pequeños contratos, igual no es suficiente... si no estoy equivocado... y eso es lo que pone en la primera página del informe. Entonces, lo que aparece en las facturas, qué es: el servicio completo o el contrato pequeño... o sea, ¿las cantidad de dinero que no ha sido suficiente?

Presidente: Dos cuestiones. Una. Esto no es un Consejo Extraordinario Urgente. Es extraordinario; y es extraordinario por el segundo motivo del *Orden del Día*, no por el primero. El primero lo hemos aprovechado porque, evidentemente, desde Getxo Kirolak lo que queremos es pagar las facturas lo antes posible. No hay otra razón. Por eso lo hemos metido aquí. Pero el motivo es que el siguiente *Punto del Orden del Día* tiene que pasar a la Comisión de Hacienda, y de la Comisión de Hacienda al Pleno. No es otro el motivo.

Y, yendo a la cuestión que me preguntas... el problema es que, como informé en su día, en un Consejo Rector, se dijo que íbamos a dar cobertura, hasta que hubiera la adjudicación del contrato principal, a través de contratos menores, y que si el contrato menor -y además creo que la pregunta fue tuya, en concreto- que si el contrato menor no daba cobertura suficiente para la facturación que correspondía, pues trasladaríamos las facturas al Consejo Rector. Y es lo que estamos haciendo ahora mismo.

Ibon Rodriguez: Por lo tanto, la pregunta es la siguiente, si las facturas solo corresponden a esas cantidades que no han sido suficientes o al servicio completo. Esa es mi pregunta.

Presidente: Las facturas estas corresponden a la parte del servicio. Los importes que aparecen en estas facturas son los que no se han podido cumplir mediante los contratos legales. Lo que me preguntaste en otra ocasión.

Paula Amieva: Nuestra duda era también con el tema

Txosten batzuk ekarri dira, eta, gero, banakapenean ez dira soilik orain arte egindakoak agertzen, baizik eta datozen hilabeteetan egingo den zerbitzuaren barnekoak ere badira: urtarrilean, otsailean,... Hemen, faktura batzuetan, 2019ko 4tik lera jartzen du; alegia, 2019koak dira, zuzenean.

Orduan, honako hau galdetzen dugu: onartzeko ekarritakoak azkenean zer dira?

Lehendakaria: onartzeko ekarritakoak orain arte emandako zerbitzuen fakturak dira, eta inola ez ezer gehiago.

Paula Amieva: baina 2019ko ordainketaren inguruko xehetasunak agertzen dira.

Lehendakaria: ez. 2019koak?

Paula Amieva: gehitutakoaren barruan...

Lehendakaria: ezin dira 2019ko ordainketak agertu, ezin delako zerbitzua egin arte fakturatu.

Paula Amieva: fakturen zenbakiak horrela daude; horregatik galdetzen dut.

Lehendakaria: esaten badidazu non...

Paula Amieva: bai. Gehitutako fakturretan ordainketaren xehetasuna ageri da, eta 2019ko data jartzen du. Hori dena abendukoa da?

Lehendakaria: ez, ez, ez. Hemen esaten duen moduan, urrikoak eta azarokoak dira. Esadazu zehazki zein faktura den, ezin dizut eta esan. Guk hemen ditugun artean. Gehitutako txostenean dauden fakturak...

Ibon Rodríguez: 1063.a, iraungipen-egunarekin.

Lehendakaria: Beno, hori beste kontu bat da! Iraungipen-data beste gauza bat da.

Paula Amieva: ados.

Ibon Rodríguez: Gauza bat. Nik igual nahiko sakonki begiratu. Fakturretan ez da agertzen konzeptua. Agertzen dena da ikastaroa...

Lehendakaria: bai, uste dut atzean... urdinez dauden fakturretan... Kontzeptua: 1. Lotea: uretako jarduerak, raketa, tenis, padel zerbitzuak.

Ibon Rodríguez: Vale. Xehetasunak, bai.

Lehendakaria: beste gairik ez badago, bozketa egingo dugu.

Alde.....	7 (EAJ/PNV - PSE/EE)
Abstentzioa....	6 (PP-GUK GETXO - EH Bildu - C's)

Bozketa egin eta gero, puntua ONARTUTZAT eman da.

de las facturas... se traen unos informes, y luego, en el desglose no vienen solamente las que están efectuadas hasta ahora, sino que son parte del servicio que va a haber incluso en los próximos meses: en enero, febrero... Aquí hay facturas que pone del 4 del 1 de 2019... que son de 2019, directamente.

Entonces, la pregunta es: ¿las que se traen para aprobar al final...?

Presidente: Las que se traen para aprobar son las facturas de los servicios prestados hasta la fecha, y en ningún caso nada más.

Paula Amieva: Pero vienen detalles del pago de 2019.

Presidente: No. ¿Del 2019?

Paula Amieva: Dentro de lo que se ha adjuntado...

Presidente: No pueden venir pagos de 2019, porque no se puede facturar hasta el momento del servicio.

Paula Amieva: Los números de las facturas vienen como tal, por eso lo pregunto.

Presidente: Si me dices dónde...

Paula Amieva: Sí. En las facturas adjuntas vienen detalle del pago, y viene fecha de 2019. ¿Esto pertenece todo a diciembre?

Presidente: No, no, no... Como dice aquí, son de los meses de octubre y noviembre. Dime qué factura en concreto porque no te puedo decir. Dime qué factura en concreto, porque aquí, en las que tenemos nosotros. Las facturas que vienen en el informe... en el informe adjunto...

Ibon Rodríguez: La 1063 con fecha vencimiento.

Presidente: ¡Ah! ¡Eso es otra cosa! La fecha de vencimiento es otra cosa.

Paula Amieva: Vale.

Ibon Rodríguez: Una cosa. Yo igual lo miraría en profundidad. En las facturas no aparece el concepto. Lo que aparece es el curso.

Presidente: Sí, ceo que por detrás... en las facturas en azul... Concepto: Lote 1, servicio de actividades acuáticas, de raqueta, tenis, pádel...

Ibon Rodríguez: Vale. En las precisiones, sí.

Presidente: Si no hay ninguna cuestión más, pasamos a votación.

A favor.....	7 (EAJ/PNV - PSE/EE)
Abstención.....	6 (PP-GUK GETXO - EH Bildu - C's)

Sometido a votación este punto, se da por APROBADO el mismo.

163.- 2019 URTERAKO "GETXO KIROLAK" TEA-N ZERBITZUAK EMATEAGATIK ETA KIROL ETA KULTUR JARDUERAK EGITEAGATIK SORTUTAKO TASA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETARAKO, HAIN ZUZEN, "SALBUESPEN ETA HOBARIK" DERITXON 4. ATALARAKO, OGASUNEKO BATZORDERA BIDERATZEKO AKORDIO PROPOSAMENA

Lehendakaria: Honako hau familia-errenta estandarizatuaren gaineko aldatzen luzapena da, Getxo Kirolakentzat aplikatzeko. Udalaren beste tasa batzuetan egin da, eta hemen Getxo Kirolakentzat eraman dugu.

Badakizue orain Ogasun Batzordea dagoela, gero pentsatzen dut, ez dakit hilabete honetan edo, alegazioak jartzeko denboraldia egongo da, eta, ondoren, alegazioen ebazpena eta berriro, hala behar izanez gero, Osoko Bilkurara eramatea. Orduan, norbaitek zerbait esan nahi badu...

Orain, behar bada, ez dut jakingo galdera erantzuten, ez dudalako gehiegi ezagutzen. Proposamena Ogasun Arlotik dator, eta, era horretan, jorratu dugu.

Ibon Rodríguez: Bi gauza. Berrestea lehen esan duzuna, ezohikotasuna dauka... *Puntu* honek agintzen duela ezohikotasuna... ez diogu ikusten horren beharrik. Baina esan sartu dituzuen eran sartuta, guk ikusten dugu egoera [...] daitezkeen egoerak gertatzen direla. Adibidez, lau kideetako familia batek ez du izango inolako modifikaziorik 16.000 euro irabazita, eta, aldiz, bost kideko familia batek bonifikazio izango du 40.000 euro irabazita.

Orduan, guk ontzat ematen dugu errenta familiar estandarizatu delako hori erabiltzea, baina sartu dituzuen moduan, edo erabiltzen dituzuen moduan, egoera desberdinak edo diskriminazioak daude, eta ez du zentzu handirik... Agian, zentzua izango luke *Lehenengo Puntuak*, Lanbide arteko Gutxieneko Soldata erreferente gisa hartuta, baina kalkulua egiteko, errenta familiar estandarizatu erabiltzea. Baina bi aldatu-mota egin dituzue, eta, horren arabera, gerta daiteke gehiago irabazten duen batek hobaria jasotzea soilik familia ugaria izateagatik, eta gutxiago irabazten duen batek ez jasotzea. Eta horrek ez dauka logika handirik, gure ikuspegitik.

Orduan, nahiko genuke hori ondo aztertzea. Nola sartu diren modifikazio horiek eta horrek sortzen dituzten egoerak.

Ignacio Uriarte: Nik esan dezakedana da, jakina, hobari-mota horiek egiteko hainbat irizpide egon daitezkeela. Proposatuta da orain arte Getxo Kirolakentzat indarrean dagoen hobaria mantentzea; hau da, familiako pertsonakopuruaren gaineko irizpidea duen hobaria gehi errenta-irizpidea. Esan dezakegu laguntza-hobaria dela. Esan nahi dut errenta baxuentzat, familian dauden pertsonakopuruaren arabera, hobari gehiago izango dituzte, %90era edo %95era bitarte zenbait kasutan. Aurrean taula

163.- PROPUESTA DE ACUERDO PARA ELEVAR A LA COMISIÓN DE HACIENDA DEL AYUNTAMIENTO DE GETXO LA MODIFICACIÓN DE LA ORDENANZA FISCAL REGULADORA DE LA TASA PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIOS Y REALIZACIÓN DE ACTIVIDADES DEPORTIVAS Y CULTURALES DEL OAL "GETXO KIROLAK" AÑO 2019, EN LO RELATIVO AL APARTADO 4 DE "EXENCIONES Y BONIFICACIONES"

Presidente: Esto es la extensión de las modificaciones por renta familiar estandarizada a la aplicación de las tasas de Getxo Kirolak. Se ha hecho en otras tasas del Ayuntamiento y aquí lo hemos trasladado a las tasas de Getxo Kirolak.

Sabéis que ahora hay la Comisión de Hacienda, luego supongo que hay periodo de... no sé si este mes, periodo de alegaciones, y luego resolución de alegaciones y elevación de nuevo, en su caso, al Pleno. Entonces, si hay alguna cuestión...

Ahora la pregunta igual no la puedo resolver, porque yo esto no conozco en profundidad. Es una propuesta que nos viene desde el Área de Hacienda, y como tal la hemos tratado.

Ibon Rodríguez: Dos cosas. Reafirmar lo que has dicho antes, que tiene carácter extraordinario... *Este punto* exige este carácter... no vemos la necesidad. Pero es que en la forma que los habéis introducido, nosotros vemos que suceden situaciones que pueden ser injustas. Por ejemplo, una familia de cuatro miembros no tiene ninguna modificación ganando 16.000 euros y, por el contrario, una familia de cinco miembros tendrá bonificación ganando 40.000 euros.

Entonces nosotros damos por bueno utilizar esa subsodicha renta familiar estandarizada, pero tal como la habéis introducido o tal como la utilizáis diferencias o discriminaciones y no tiene mucho sentido... Quizá tendría sentido el *Primer punto*, teniendo en cuenta el Salario Mínimo Interprofesional como referente, pero para hacer el cálculo utilizar la renta familiar estandarizada. Pero habéis introducido dos tipos de modificaciones, y según esto, puede suceder que uno que gana más reciba bonificación solo por ser familia numerosa, y que uno que gana poco no la tenga. Y esto no tiene mucha lógica, desde nuestro punto de vista.

Entonces, sería suficiente con examinar esto bien. Cómo se han introducido estas modificaciones y las situaciones que generan.

Ignacio Uriarte: Yo lo que puedo decir es que, efectivamente, se pueden hacer con varios criterios este tipo de bonificaciones, y lo que se plantea es que se mantenga la bonificación que está en vigor hasta ahora en Getxo Kirolak, que es la bonificación con criterio de número de personas en la familia, más el criterio de renta. Digamos que es una bonificación asistencial. Quiero decir, para aquellas rentas bajas, dependiendo del número de personas que tengan en la

baduzu, uste dut errentaren eta pertsonen kopuruaren araberakoa dela.

Hori mantendu egingo da, zu defendatzen ari zarenarekin bat, baita koherentzia horrekin ere.

Hori ukitu daiteke eta tarte guztietara zabaldu, edo hobarietarako modu gehigarrian jarritako zenbatekoaren zati bat bil daiteke, izaera sozialarekin, politika guztien ildotik, dagoeneko aipatu moduan. Horrela defendatzen du Eusko Jaurlaritzak, eta hori kontuan du baita ere Aldundiak, errenta-gaiekin, baina funtsean Eusko Jaurlaritza ari da bultzatzen, eta, beraz, familia ugarietzako aldaketa soziala agertzen da.

Hor, bai, errenta-irizpidea gehitu da, familia ugariaren baldintza onartuta, politika sozialek kasu honetan mantentzen duten ildo horretan. Alegia, jada ez dira laguntzakoak, sozialak baizik, ezberdintzeko eta beste izen batzuk jartzeko.

Zure irizpidearen arabera, lerro osoa aldatuko litzateke. Aukera hori ere izan daiteke, baina, une honetan, dagoena ez aldatzea aukeratu da, baizik eta gehitzea. Zeren gero inpaktu ekonomikoa dago, eta horrek kostu ekonomikoa du, eta punturen baterako jarri eta bildu behar da.

Gogoratzen baduzue, jada legegintzaldiaren hasieran aldatu ziren hobari... orain arte zeudenak. Eta tarte gehiago ere sartu ziren, Getxo Kiroolaken hobariak gehitu ziren legegintzaldiaren hasiera, lehendik zeudenetatik, eta orain izaera sozialekoek, hots, familia ugarietzako hobari berezia jarrita, besteak kaltetu gabe (alegia, orain arte zeuden hobariak kendu gabe) nola funtzionatzen duten ikusi nahi da. Soilik Getxo Kiroolaken sartu dira, ikusita nola funtzionatzen duten, ikusita zein den portaera eta irizpide horiei erantzunez. Izan ere, ez da ahaztu behar hobariak, hemen gehitzen ari diren moduan, lerro politiko batekoak direla, administrazio ezberdinak koordinatuaz, eta, nolabait esateko, hori aitzindaria da. Ez dugu erreferentzia-kopuru handiegirik, eta horretarako onartu beharko litzateke, ildo horretatik joan nahi izanez gero, Getxo Kiroolaken dagoen tarifa-egitura osoa. Dagoeneko eztabaida bat izan dugu EH-BILDUREkin behin baino gehiagotan bilduta, eta, nire ustez, ez da hain sakona izan bestelako formazio politikoekin, baina politikoki sakonagoa den eztabaida da, eta Getxo Kiroolakeko tarifa-egiturak, edonola ere, hausnarketa askoz ere sakonagoa beharko luke.

Eta orduan bai proposatu zitekeela edo, gure ustez, egingarriagoa litzateke zu aipatzen ari zaren lerroa proposatzea.

familia, pues van a tener más bonificaciones, que llegan incluso hasta el 90 % o 95 %, creo que es -si tienes una tabla delante- dependiendo de la renta y de las personas.

Esa lo que se hace es mantener, en la línea de lo que tú puedes estar defendiendo, también con esa coherencia.

Se podría ir a tocar eso, y ampliar todos los tramos, o se puede concentrar parte del importe destinado a las bonificaciones de forma añadida, con un carácter social, en la línea de toda política, que ya se ha mencionado en alguna ocasión, que se defiende desde el Gobierno Vasco, que también tiene en cuenta a la Diputación, con los temas de renta, pero básicamente es el Gobierno Vasco quien la está impulsando y se recoge, por tanto, una modificación de carácter social a las familias numerosas.

Ahí sí se aumenta el criterio de renta, reconociendo el carácter de familia numerosa, en esa línea que está mantenida también por las políticas sociales, en este caso. Es decir, no ya asistenciales, sino sociales, por diferenciar y por poner otros nombres.

El criterio que tú planteas es el de modificar toda la línea. Es una opción que también se puede contemplar, pero de momento, por lo que se ha optado es por no modificar lo que está, sino por aumentar. Es decir, porque luego hay un impacto económico, además eso tiene un coste económico, y tienes que destinarlo y concentrarlo en algunos de los puntos.

Si recordáis, ya a principios de legislatura se modificaron las bonificaciones de carácter... las que estaban hasta ahora... se incluyeron todavía más tramos, se aumentaron las bonificaciones de Getxo Kiroolak a principio de legislatura, con respecto a las que estaban antes, y ahora lo que se hace es ver si las de carácter social, es decir, incluyendo una bonificación especial para las familias numerosas, sin perjudicar a las otras, es decir, no se restan para nada las bonificaciones que estaban hasta ahora, ver cómo funcionan también... es decir, se meten únicamente en Getxo Kiroolak, viendo cómo están funcionando, viendo cuál es el comportamiento, y respondiendo a esos criterios. Porque no hay que olvidar que las bonificaciones, tal y como se están incrementando aquí, responden a una línea política, coordinando las diferentes administraciones, y que, de alguna manera, es algo pionera. Es decir, no tenemos un gran número de referencias, y para ello habría que aceptar, si quisiéramos ir por esa línea, prácticamente también toda la estructura tarifaria que está en Getxo Kiroolak... en un debate que ya hemos tenido con EH-BILDU de forma particular en más de una ocasión y yo creo que no ha sido tan profundo con otras formaciones políticas, pero que es un debate políticamente más profundo, y la estructura tarifaria de Getxo Kiroolak necesaria, en todo caso, una reflexión bastante más profunda.

Y entonces sí se podría ir incluso a plantear o entendemos que sería más factible plantear la línea que tú estás comentando.

Gaur egun, dagoeneko ezarrita dagoena ez ukitzea erabaki da, funtzionatzen ari delako, eta besterik gabe hobari- aukerak areagotzea. Eta hori gogobetegarria izan daiteke gehiago edo gutxiago, baina dagoen planteamendua hori da.

Ibon Rodríguez: Bota duzun guzti hori ez dugu ikusten hain zaila izango den hau. Azken finean, hemen lehenengo bonifikazio sisteman esaten dena da: jartzen da errenta maila zein izango den, baina errenta familiar estandarizatu hori kalkulatzeko bide bat. Eta orduan, zentzu horretan, kalkulatzeko bidea aldatuta, eta kontuan izanda, gainera, Getxo Kirolakeko tarifetan aurreikusten direla jadanik zortzi kideetako, edo gehiotako familiak hartzen dira familia numerosa deitzen direnak. Baina orain sartu duzun moduan, badago bonifikazio bat familia numerosoei numerosoa izateagatik. Eta hor da kontuan hartzen horren errenta, zeren eta seme baten edo alaba baten diferentzia 20.000 eurotan dago. Lau semerekin, 19.000 euroekin jadanik bukatzen duzu... ez daukazu inolako bonifikaziorik. 21.000 euro irabazten baldin baditu familia horrek, ez dauka inolako bonifikaziorik. Ahora... bost seme baldin badauzka, bai... 40.000 euro irabazita ere.

Horri ez diogu inolako logika sozialik ikusten.

Susana Andollo: Guk ere ez dugu ikusten. Ez dugu ulertzen ezta ere proposamen hau zergatik ez den eraman talde guztiengana, gure ekarpena egin ahal izateko. Eta, baita ere, iruditzen zaigu, beste behin, urteak igaro, eta gauzak argitu gabe geratzen direla herritarrentzat; hau da, ... hortik datozen laguntzak eta hobariak. Alegia, laguntza bat eskatzen duen jendearentzat, aurkezten duzun koadro hori ez da bidezkoa, gutxienez nire ustez, jendeari lagundu baino gehiago nahastu egiten baitu.

Gainera, oker ez banago, uste dut Gobernu Batzordeko norbaitek esan zuela ahaleginduko zela kobratzen ziren tasak eta Udalean arlo ezberdinetan aplikatzen ziren hobariak, elkarren artean apur bat koherenteak izan zitezten.

Beste behin Tasen beste Ordenantza bat aurkeztera goaz, eta beste behin inolako ahaleginik ez egitera horrela izan dadin.

Jose Luis Landa: Eztabaidagarria izan daiteke, baina egia da familien errenta estandarizatuak ez direla Udal honen asmakizuna, Inaxiok adierazitako moduan, Euskal Autonomia Erkidegoan erabiltzen den irizpide orokorra direla. Eta, jakina, arazoa da familia ugaria izateagatik ez dizutela sari edo hobaririk ematen, errenta zehatz baten azpiko familia ugaria izateagatik baizik.

40.000 euro asko direla ematen duela? Ados. Eztabaidagarria da. Erabat progresiboak diren beste elementu batzuk egon daitezke eta zuzentzeko indize batzuk aplikatu familiako kide bakoitzari, goikoei aplikatzen zaien bezala, gutxieneko soldataren arabera. Baina uste dut ez Inaxiok ez Alvarok ez dutela esan, eta nik aldea ikusten dut gaur proposatzen denaren eta aurrekoaren artean. Aurrekoak, duela urte batzuetatik hona

A día de hoy lo que se ha optado es por no tocar lo que ya está establecido, y que está funcionando, y simplemente aumentar las opciones de bonificación. Y puede ser más o menos satisfactorio, pero es el planteamiento que hay.

Ibon Rodríguez: Todo eso que has dicho no creemos que sea tan difícil. A fin de cuentas, aquí es lo que se dice en el primer sistema de bonificación: pone cuál será el nivel de renta, pero un medio para calcular esa renta familiar estandarizada. Y entonces, en ese sentido, cambiado el sistema de cálculo y, teniendo en cuenta, además, que en las tarifas de Getxo Kirolak ya se tienen en cuenta las familias de ocho o más miembros ya se recogen las que se llaman familia numerosa. Pero como lo habéis metido ahora, hay una bonificación a las familias numerosas por el hecho de ser numerosas. Y ahí se tiene en cuenta la renta, pues la diferencia de un hijo o hija está en los 20 000 euros. Con cuatro hijos, con 19 000 euros ya termináis la bonificación. Si esa familia gana 21 000 euros, no tiene ningún tipo de bonificación. Ahora... si tiene cinco hijos, sí... incluso ganando 40 000 euros.

A eso no le vemos ningún tipo de lógica social.

Susana Andollo: Nosotros tampoco lo vemos. Tampoco entendemos por qué no se ha traído esta propuesta a todos los grupos, para que podamos aportar. Y también vemos que quedan... otra vez... pasan los años, y siguen sin quedar claras, para la ciudadanía, unas ayudas y unas bonificaciones que vienen por ese... O sea, es que para la gente que solicita una ayuda, ese cuadro que presentáis es injusto, por lo menos para mí. Porque a la gente eso la confunde más que la ayuda.

Y además, creo recordar que no sé si fue alguien de la propia Junta de Gobierno que dijo que iba a hacer un esfuerzo en intentar que las tasas que se cobraban y las bonificaciones que se aplicaban en este Ayuntamiento en las diferentes áreas, tendrían que ir un tanto... tendrían que ser un poco coherentes entre sí.

Desde luego, volvemos a presentar otra vez otra Ordenanza de Tasas, y volvemos otra vez a no hacer ningún tipo de esfuerzo para que así sea.

José Luis Landa: Puede ser discutible, pero lo cierto es que las rentas familiares estandarizadas no son un invento de este Ayuntamiento, sino que, como ha comentado Inaxio, es un criterio general que se emplea en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Y claro, el problema es que por ser familia numerosa no te priman ni te bonifican, sino por familia numerosa por debajo de una renta en concreto.

¿Que pueden parecer mucho 40.000 euros? Vale. Es discutible. Puede haber otros elementos que sean exclusivamente progresivos y aplicar unos índices correctores a cada miembro de la familia, como se les aplica a los de arriba, en función del salario mínimo. Pero una cosa que creo que no ha comentado ni Inaxio ni Álvaro, yo veo una diferencia entre la que se propone hoy y la anterior. Porque la anterior, la que

indarrean dagoenak, kuotak eta ikastaroak diruz laguntzen ditu. Oraingoan, ikastaroek ez dute diru-laguntzarik. Jada esaten dut hori ez dela erremedioa edota behin betiko irtenbidea, baina kontuan hartu beharrekoa dela uste dut. Garestia dena,... kuota mingarria izan baitaiteke poltsikoren batentzat, ezta? Baina ikastaroak, osasunerako, gizarteratzeko, e.a. badute diru-laguntza lehen kasuan, indarrean denean. Hemen, ezarritakoan, ordea, ikastaroetan esaten den bezala, orain, ez, ez, ez, soilik kuota; ikastaroak oso-osorik ordaindu behar dituzu. Hori guztia argitzearren.

Ibon Rodríguez: Amaitzeko. Gu ez gara esaten ari familiaren errenta estandarizatu ez ezartzeko. Esaten duguna da hobari hori ezartzean, bestea alde batera utzita, alde gaindiezinak sortzen direla lau pertsonako familia bat edo bost pertsonako familia duenaren artean, alde izugarriak. Lau kideko familia batek, 21.000 euroekin, inolako hobaririk jasotzeko eskubiderik ez duenean, bost kideko batek eskubidea du. Horixe da aldea.

Esan nahi duguna da familiaren errenta estandarizatu erabiltzeko lehen hobariak kalkulatzeko, nahi izanez gero, muga mantenduaz, lanbide arteko gutxieneko soldata ez baita errentaren kalkulua, hobariaren muga bat baizik. Orduan, familiaren errenta estandarizatuarekin kalkulaten da, eta hobari-muga erabiltzen da. Eta hori ez da hain zaila, eta ez ditu hainbeste eraldaketa sortzen inolako kontabilitate-sisteman. Eta, horrela, ez lirateke hemen sortzen diren adina alde sortuko.

Horixe esan nahi genuen, argi geratzeko.

Miguel Ibabe: guk esan nahi genuen oso ondo iruditzen zaigula Getxo Kirolak familiaren errenta estandarizatu aplikatzea, beste erakunde batzuetan jada egiten hasi diren moduan, eta ederki iruditzen zaigula bereziki udalerrikoei hobaria ematea. Horixe jasota gera dadin. Eskerrik asko.

Lehendakaria: beste gairik ez badago, puntu hau bozkatuko dugu, eta emaitza ondorengoa da:

Alde.....	8 (EAJ/PNV - PP - PSE/EE)
Kontra.....	3 (GUK GETXO - EH Bildu)
Abstentzioa....	1 (C's)

Bozketa egin eta gero, puntua ONARTUTZAT eman da

Tratatu beharreko bestelako auzirik gabe, biltzarrari amaiera ematen zaio, 14:55ean, akta honen goiburukoan aipatutako egunean.

Lehendakaria / El Presidente

está en vigor desde hace años, subvenciona las cuotas y los cursos. En esta, los cursos no. Ya digo que no es la "purga de Benito" ni la solución definitiva, pero creo que es un tema a considerar. Porque lo caro... la cuota puede resultar un poco dolorosa para algún bolsillo, ¿no? Pero los cursos, que exigen... eso es lo que garantiza el acceso a la salud, a la integración y tal... eso sí se subvenciona en el primer caso, en el que está en vigor. En cambio en este en el que se implementa... como dicen los cursos ahora... no, no, no... solo la cuota... los cursos te los pagas al cien por cien. Era para aclarar.

Ibon Rodríguez: Por terminar. Nosotros no estamos diciendo que no se implemente la renta familiar estandarizada. Lo que estamos diciendo es que al implementar esta bonificación, independientemente de la otra, se producen unas diferencias insalvables entre quien tiene una familia de cuatro personas y una familia de cinco... unas diferencias bestiales. Mientras que una familia de cuatro personas, con 21.000 euros, no tiene derecho a ningún tipo de bonificación, una familia de cinco personas sí la tiene. Esa es la diferencia.

Lo que decimos es que se utilice la renta familiar estandarizada para el cálculo de las primeras bonificaciones, manteniendo, si se quiere, el límite... porque el salario mínimo interprofesional no es un cálculo de la renta, sino que es un límite de bonificación. Entonces, se calcula con la renta familiar estandarizada, y se utiliza el límite de bonificación. Y eso no es tan difícil, ni genera tantas distorsiones en ningún sistema contable. Y eso no generaría diferencias como las que se generan aquí.

Eso es que es lo que queríamos decir, para que quede claro.

Miguel Ibabe: Nosotros queríamos decir que nos parece fenomenal que se aplique la renta familiar estandarizada en Getxo Kirolak, como ya se ha empezado a hacer en el resto de otros organismos y que nos parece fenomenal también que se bonifiquen en especial a las familias numerosas del municipio. Que quede constancia. Gracias.

Presidente: Si no hay ninguna cuestión más, se somete a votación este punto, y da el siguiente resultado:

A favor.....	8 (EAJ/PNV - PP - PSE/EE)
En contra.....	3 (GUK GETXO - EH Bildu)
Abstención....	1 (C's)

Sometido a votación este punto, se da por APROBADO el mismo.

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 14:55 horas del día mencionado en el encabezamiento de la presente acta.

Behin-behineko gerentea / Gerente accidental

